

3.2.1. Ikasle bakoitzari (bai zailtasunak dituztenei, bai ikasle bikainei) eta talde/gela bakoitzari hezkuntza-erantzun egokiena emango zaiola bermatzeko prozedurak sustatzea.

Ikastetxean ez dago ikasleen ikaskuntza-prozesuan hautemandako beharretarako erantzuna antolatzen duen prozedurarik.

Zuzendaritzak bermatzen du irakasleentzako jarraibideak daudela, ikasleen ikaskuntzen banakako jarraipena egin dezaten, eta hautemandako arazoak gainditzen laguntzeko haien esku dauden bitartekoak jar ditzaten, bai banaka, bai talde/gela gisa.

Irakasleen koordinazioa sustatzen du, ikasle bakoitzarentzat eta taldearentzat erantzun egokienak garatzeko.

Ikasle guztiak itxaropen handiak izatea bultzatzen du.

ICP eta programazioek aniztasunari arreta emateko neurriak aintzat hartzen dituzte.

Ikasle bakoitzaren eta taldearen jarraipena bermatzeko prozedurak daude, bai eta ikasteko arazoak gainditzeko lagungarriak izango diren neurriak hartzeko prozedurak ere. Prozedura horiek dokumentuetan jasota daude, eta irakasle guztiak ezagutzen dituzte.

Erantzun egokituak ematen zaizkio ikasle bakoitzari, bai eta taldeari ere, oinarritzko gaitasunak eskuratzean eta ikaskuntzak hobetzea helburu hartuta.

Irakasleek itxaropen handiak dituzte ikasle guztien ikaskuntzei buruz.

Aldian behin, abian jarritako prozeduren eraginkortasuna ebaluatzen da.

Zuzendaritzak aldian behin berrikusten ditu hartutako neurriak, kalitatezko erantzuna ematen duten ikusteko, eta hobetzeko beharrezkoak diren aldaketak egiten dira. Berrikuspen hori sistematizatuta eta dokumentuetan jasota dago.

Ikastetxe guztia konprometituta dago ikasle bakoitzak eta talde bakoitzak ikas-prozesuak hobetzeko behar duen hezkuntza-erantzuna izan dezan.

Ikastetxeak itxaropen handiak ditu ikasle bakoitzari eta talde bakoitzari begira, eta ikasle bakoitzaren ikaskuntzari balioa eranstea lortzen du.

Ikasgeletan aniztasunari eta inklusioari arreta ematea bultzatzen duten metodologiak baliatzen dira.

3.2.2. Laguntzak eta baliabideak eskola inklusiboaren printzipioen arabera kudeatzea (ohiko testuinguruan egotea, parte hartzea eta lortzea). Behar handiagoa duten ikasleei laguntza handiagoa bermatzea, batez ere berariazko hezkuntza-laguntza behar dutenei.

Berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei hezkuntza-laguntza ohiko ikasgelaren testuinguruan emateari dagokionez, politika lausoa dago ikastetxean, edo horren aurkakoa.

Irakasle bakoitzak edo irakasle-talde bakoitzak erabakitzen du bere ikasleek zer laguntza behar duten; zuzendaritzak ez du horretarako jarraibiderik ematen.

Zuzendaritzak bultzatu du irakasleek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin egiten dituzten esku-hartzeak ohiko ikasgelan egitea, ikasgelatik kanpo ere berariazko laguntza ematea baztertu gabe, beharrezkoa izanez gero.

Baliabide gehiago inbertitzen dira gehien behar duten ikasleekin.

Zuzendaritzak irizpide batzuk ezarri ditu, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin egin beharreko esku-hartzeak ohiko ikasgelan edota ikasgelatik kanpo egingo diren erabakitzeke. Ohiko ikasgelan ematen den hezkuntza-erantzunari ematen zaio lehentasuna.

Hartutako neurriak ebaluatzen dira, eta behar dituzten hobekuntzak aplikatzen.

Baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzen dira.

Ikastetxea etengabe arduratzen da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzun hobea emateaz. Jardunbide egokiak partekatzen ditu, eta beste ikastetxe batzuen esperientzia arrakastatsuek biltzen ditu (hezkuntza berezia, goraka ari diren arazoak, portaera-arazo larriak, sare-lana beste erakunde batzuekin...).

3.2.3. Ikasleen aniztasunari erantzuteko erakunde-programetan parte-hartzea.

Ikastetxeak parte hartzen du aniztasunari arreta ematea sustatzeko eta baliabide gehiago lortzeko erakunde-deialdietan.

Ikastetxeak parte hartzen du aniztasunari arreta ematea sustatzeko eskura dituen deialdietan. Eraginkortasunez kudeatzen ditu eskuratzen dituen baliabide gehigarriak. Ikusten da ikasleei hezkuntza-erantzun hobea ematen laguntzen duela.

Zuzendaritzak erakunde-programen eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa egiten du, eta ikasleen emaitzak hobetzen direla egiaztatzen du.

Ikastetxeak ibilbide luzea egin du horrelako programetan. Sistematikoki ebaluatzen ditu, emaitza hoberenak lortzea helburu hartuta. Programa horiei dagokienez, ikastetxearen kudeaketa erreferentziazkoa da hezkuntza-eremuko beste zentro eta erakunde batzuentzat.